

noa

Imanol Urbieta omenduko
dute Ikastolaren Egunean

Gulak, igandeko Tipi-Tapan

Ziklobia, iruditan

m30
**GREBA
OROKORRA**

Eskubide sozial
eta laboral duinak
por un modelo propio
en Euskal Herria

m30
**GREBA
OROKORRA**

Eskubide sozial
eta laboral duinak
por un modelo propio
en Euskal Herria

m30
**GREBA
OROKORRA**

Eskubide sozial
eta laboral duinak
por un modelo propio
en Euskal Herria



m30
**GREBA
OROKORRA**

Eskubide sozial
eta laboral duinak
por un modelo propio
en Euskal Herria

Maiatzaren 30eko greba, Gutun Sozialaren lehen harria

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere noaua.com web orrian



http://www.

Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com

MERKATU TXIKIA

noaua



ORDUTEGI BERRIA!!!

ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 06:00-20:00

IGANDETAN: 06:00-14:00

**OKINDEGIA
KAFETEGIA**

943 37 45 95 KALE NAGUSIA 10, USURBIL



2013
udajolas

Udajolasen zozketa egin ondoren, plaza ziurtatuta daukazutenak,
ORDAINKETA EGIN EKAINAREN 4a BAINO LEHEN.

Data hori pasata egiten diren ordainketak ez dira onartuko eta plaza galduko da.

Ordainagiriaren kopia Noaua!ra eraman behar da.

Ordainketa EUSKADIKO KUTXAKo kontu honetan egin behar da eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:

3035 0140 34 1400025811 Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko inolako kasutan.

Kuota: 79€ **Famili ugaria: 63€** (txartelaren kopia ekarri behar da)

Udajolas 2013 guraso bilera, ekainaren 13an osteguna, 17:00etan Udarregi ikastolan izango da.

Harremanetarako telefonoa: 943 360321

noaua



Usurbil
osasuna atez ate

Albisteak iruditan

Igandean gulak, ikasturteko azken Tipi-Tapan

Igandean, Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal edo Txapeldun tabernetara gerturatzen denak mokadu bereziak dastatzeko aukera izango du beste behin; gulekin eginiko pintxo goxo askoak. Besteak beste, gula entsalada, gulak aji-llo erara edota tortilla gula. Edariarekin batera (urteko ardo zuri, gorri edo beltza, txakolina, sagardoa, zurtoa, muztioa edo ura) 2 eurotan. Jatekoak bakarrik, 1,5 eurotan. Hau guztia, igande honetan, ekainaren 2an ospatuko den Tipi-Tapan. Eta adi, Hurbilago elkarteak establezimenduetan xahutu ahal izango den 300 euroko erosketabalea zozketatuko baita oraingoan, 15:00etan Aitzagan.

Hurbilago Elkartek, Usurbilgo Udalaren laguntzaz antolatzen duen ibilbide gastronomikoaren zazpigarren edizioa izango da igande honetako, ikasturteko azkena. Uztailan eta abuztuan ez baita Tipi-Taparik izango.



300 euroko erosketa-txartelaren zozketa Aitzagan egingo da, 15:00etan.

Udazkenetik aurrera, ekimen honi jarraipena eman asmo diote tabernariak. Beraz, igandean

esku artean dituzuen Tipi-Tapa txartelak gorde ondo, hurrengo ikasturterako.

Laburrean

Izen ematea, Lanbide Eskolan

Ekainaren 7ra arte irekita jarraituko du, datorren ikasturterako Lanbide Eskolak eskaintzen dituen erdi eta goi mailako zikloetan aurre matrikulatzeko epeak. Honako hezkuntza eskaintza dute Zubietan, A eta D ereduetan: Administrazioa eta kudeaketa, elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, ura eta energia alorreko loturiko zikloak. Informazio gehiago: 943 364 600 telefono zenbakian edo lhusurbil.com web orrialdean.

Konpostatzeari buruzko ikastaroa Potxoenean

Hilero izango dira aurrerantzean. Lehen saioa, asteazkenean, ekainak 5, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean.

"Gonbitea luzatzen zaizue, konpostatzen hasi nahi duzuen bizilagun orori: izen emanda eta itxarote zerrendan zaudeten auzokonpostalariak, edota konpostaz zalantzak argitu edo gehiago ikasi nahi duzuen guztiei", udal iturriek aditzera eman dutenez.

Ziortzakoen kanpaldiko muntaketa lanetarako deia

Sare sozialen bidez, twitterretik zabaltu dute deialdia Ziortzakoei. Udan, Peñaloscintosen (Errioxa) antolatu duten kanpaldia muntatzera joateko eguna jarri dute jada. Ekainaren 22an izango da, larunbatez. Uztailerako Usurbilgo haur eta gaztetxoek aisialdi gunea izango dena prestatzen laguntzeko gonbita luzatzen diete herriarrei. Interesdunek email bat idatzi besterik ez dute, ziortzage@gmail.com helbidera.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeka.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Ugaitz Agirre

Nora goaz?

Bota errua Giuseppe Trebbini edo bestela Giuseppe Battellini edo Gian Enrico Rusconi. Bota errua Garibaldi, Cavourri edo Bismarcki. Ez da *mea culpa*rik independentziari edo nazioari buruz idazten badut gaurkoan. Erru guztia besteek dute. Bota errua Kataluniari, Eskoziari edo Kortsikari. Ez da erruduna ez naizelako, baina badakizue, kulpabeti beste batena da.

Enbaxadore bat bezala sentitzen naiz munduaren amaiera honetan, trenbideek trenetia stop dieten eremu honetan. Egon denak hemen badaki zergatik diodan. Herrian gertatzen den guztiaren berri dut (beno gehienarena), baina bertan ez egonik kanpoko ikusle batek bezala ikusten dut dena. Postu pribilegiatua San Giusto gazteluak eskaintzen duena.

Baina mintzo gaitzen benetan axola duenaz: Zergatik gara hain burugogorak? Zergatik gara hain artaburuak? Hain anormalak? Hain, hain, hain ... Galdera erdi erretoriko hauen intentzioa iraintzea da, ez dago inolako sarkasmo edo ironiarik ... beno agian

apur bat, goilarakada bat, ez gehiago.

Inongo izenik aipatu gabe, politika instituzionalean sinesten dugu oraindik, gainontzeko herrialdeetako gobernuak aurrerapausoak daramatzaten bitartean gurean haur jolasetan gabilta: berak ez dit pilotarekin jolasten uzten, baina nik ere ez diot utziko nirearekin jolasten eta pilota galtzen badu, izorrai! Honetarako daude Legebiltzarrean? Pilotarekin jolasteko? Martxa honetan nituen ilusio guztiak galduko ditut.

Eta oraindik *ligthegia* iruditzen zait idatzi hau. Zarata behar du, buila, garrasiak. Haserre gehiago, eromen gehiago!

Independentzia nahi dugula, askatasuna nahi dugula ... Eta zer egiten ari gara? Sozialismoa! Sozialismoa! diote batzuek ... Eta ideia putarik ez zer den! *Daskapital* irakurri eta ulertu balute bezala mintzo dira intelektual paperan. Eta historiarekin justifikatzeko gure existentzia gai dira erromatarren askatasun eta subiranotasunaren ikur bezala hartzeko. Azken fine-

an bla bla bla Independentzia eta Sozialismoa! Gora Euskal Herria askatuta! Akaso horregatik telebistako debateetan ez dute historialaririk eramaten inoren justifikazio historiko-politikoa ez dezaute hankaz gora jarri.

Falazien eta gezurren inperialismo kognitiboa. Eta gainera gure ignorantziatik gai gara egia gezurra dela esateko gure ikuspuntutik oker baitago egia hori. Eta gainera nazia edo faxista deituko diogu egiari gure argudio indartsuena bailitzan.

Gobernuaren inobilismoa independentziaren alorrean eta Herriaren ignorantzia erradikala. Errobiren kantu baten izenburua galdera: Nora goaz?

Eta inkontzienteki Hegel dugu maitale. Batetik Estatuak eta bestetik Gizarteak. Estatuak dituen helburuen atzetik jarraitzen du, nahiz eta Gizartearen kalterako izan. Eta egun ekonomiak agintzen duenez, lehentasuna Estatuaren osasuna (ekonomikoa) da eta ondorioztatzen dute honen suspertzearekin Gizartearen osasuna hobetuko dela, inoiz alderantzizkoan

pentsatu gabe.

Gobernuaren posturoa ez denez aldatuko (oraingoz) gure soluzio bakarra Herria mugitzea da albo batera utzita alderdi jokoak, ignorantzia etab. eta kausa batengatik, hau da, independentziagatik eta alde mugitzea eta borrokatzea. Zarata atera behar dugu kalean munduak entzun diezagun. Justifikazio historikoak aparte utz diezagun, kontzentratu gaitzen justifikazio garaiki-deetan. Independentzia ez da Sabino Aranatik datorkigun kapritxo bat, gurea denaren defentsa baizik. *Ultimatum* batek egon behar du: gurea dena babesteko prest zaudete (utzi pentsatzen ... EZ!) edo bagoaz hemendik! Konturatu behar baikara kultura dela euskaldun egiten gaituena eta gure kultura gainbeheran doala kanpoko eta BARNEKO hainbat motibo tarteko. Kulturarik ez badugu agur independente izateko aukera orori.

Beraz: kontzentzia gaitzen, utzi txorakeriak albo batera eta Marxi ideia lapurtuz: Munduko euskaldunak batu gaitzen!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | **Ugaitz Agirre** | Nerea Zinkunegi

Uretako sorospen ikastaroa antolatu du DYAk

Uretako arrisku egoerei nola aurre egin jakiteko, uretako sorospen ikastaroa antolatu du Gipuzkoako DYAk Usurbilen. Ikastaroa larunbat honetan hasi eta lehen lau asteburuetan zehar burutuko da. Oinarrizko ezagupenak irakatsiko dira, baina oso erabilgarriak, Oiardo Kiroldegian eta Etumeta AEK euskaltegian egingo

diren saioetan. Teoria eta praktika uztartuko ditu ikastaroak, modu eroso eta atseginean. Amaieran, Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera egongo da.

Ekainaren 1ean abiatuko den ikastaroan parte hartzeko, lehen sorospen eta sorosle ikastaroa eginazitea ezinbestekoa izango da. Hona hemen, ikastaro honen ordu-

tegi, prezio eta bestelakoen berri:

Epea: ekainak 1-23 (larunbat eta igandeetan). Orduetgia: larunbatak: 9:00-13:00 eta 15:00-19:00. Igandeak: 9:00-13:00.

Tokia: Oiardo Kiroldegia eta Etumeta AEK euskaltegia.

Prezioa: 200 euro (matrikula eta txostena barne). Plazak mugatuak. Informazio gehiago: 943464622.



Kiroldegian eta Etumeta AEK euskaltegian egingo da ikastaroa.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: ekainak 7. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 3.

Ekainaren 5ean, Santixabeletako Jai Batzordearen bilera

Gainean ditugu Santixabelak. Jai Batzordea jada prestaketa lanen azken txanpara heltzen ari da. Bilera deitu du, datorren asteazkenerako, ekainaren 5erako, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

San Juan jaiak, ekainaren 15etik 24ra

Eskea San Juan bezperan, musika, jokoak, jan edana... Kaleazko Jai Batzordeak prest du, aurten goan ere bi astebururen bueltan ospatuko diren auzoko festen egitaraua. Inguruotako jaien denboraldia estreinatuko duten San Juanak ekainaren 15 eta 16ko asteburuan hasiko dira. Lau egunetako etenaldiaren ostean, ekainaren 21ean itzuliko dira Kalezarreko festak. Gainerako ekitaldiak, hilaren 22an, 23an eta 24an ospatuko dira.



Bi astebururen bueltan ospatuko dira San Juan jaiak Kalezarren.

Aginagarren kinto bazkaria

Ekainaren 8rako, larunbata, kinto bazkaria antolatu dute 1963-66 urte artean jaio ziren aginagarrentzat. Otordua, Sekaño erretegiaren ospatuko da. Joan asmo duenak, aldeztu aurretik izena eman behar du 943 362 773 telefono zenbakira deituta.

Ekainaren 8an, 1977koen kinto bazkaria

Datorren astean ospatuko dute 1977an jaio-takoen kintoen bazkaria. Ekainaren 8a larunbata, Aginaga sagardotegian. Aldez aurretik eman behar da izena eta antolatzaileek zerrendak ipini dituzte Aitzaga eta Irrati tabernetan.

Langabeak kontratatzeke diru laguntzak, ekainaren 30era arte eska daitezke

Eskualdeko Enplegu Planaren baitan, langabeak kontratatzeke diru-laguntzak eska ditzakete Donostialdeko enpresek; hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo lantegiek. Horretarako, ekainaren 30era arteko epea dute, Usurbilgo Udaren web orrialdeak gogorarazten duenez. Hauexek, diru-laguntza deialdi honi buruz jakin beharrekoak:

-Nortzuk eska ditzakete?: eskualdeko enpresa, profesional eta laneratzea sustatzen duten erakundeak.

-Kontratuak: lanaldi osorako eta gutxienez 6 hilabeterako egingo zaizkie, Lanbiden lan-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen.

-Dirulaguntzaren zenbatekoa: 641,40 euro hilabeteko (gehienez 6 hilabetez) eta kontratatzen den pertsona bakoitzeko.

Diru-laguntza eskaerak Andoaingo Urigain etxean (La Salle etorbidea, 6) aurkeztu behar dira. Bertan du egoitza, Andoaingo Udaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Sailaren erregistroak. Halere, argibide gehiago, Usurbilgo Udalean eskura litezke: enplegu@usurbil.net helbidean edo 943 371 951 telefono zenbakian, Josune Mujika teknikariarekin harremanetan jarrita.

Ika-Mika

Andatza mendiaren etorkizuna

Azken urteotan lekuko gara nola Andatza mendia erabat aldatzen ari den. Pinuari bere zikloa agortu zaio eta nahiz eta estimazio handirik ez eduki moztu beharrean aurkitzen da. Azken 20 urte hauetan Foru Aldundia hor ari da pinua bota eta bota eta hutsuneak bete nahian hasera batean pinua berraldatzen bazuen ere, oraingoan ostozabal batzuei aldatzeari ekin dio.

Aurtengo neguan, Andatza goialdeko pinu eta lawsoniana botatzeari ekin dio Diputazioak. Honek kezka handia eragin du herrian, bide-

zidor eta pistetan sorturiko kalteak nabariak izan baitira.

Bestalde poza handia, sortzen du, gurutzetik abiatu eta buzoiaraino pinuak bota ezker, irabaziko genituzkeen bista zoragarriak.

Pinua botatzeko garaian kontu pixka batekin jardun ezker, tartean aurkitzen diren harri eta arkaitzek osatzen duten multzoak, eta zuhaitz ezberdinak, haritza, ametza, gaztaina, gorostia, urkia eta abar salbatzea egongo litzatekeela pentsatzen dugu. Gure ustez, inguruarekiko begirune gehiago eskatu beharko geniekela mendi ustiatzaileei.

Andatza mendia usurbildarron mendi kuttuna dugu, oinez nahiz bizikletaz ibiltzeko, udara eta udazkenean onddoak eta gaztainak biltzeko, ehiztariek oilagorretarako txakurrak trebatzeko, ganaduzaleek belar izpiak aprobetxatzeko (Diputazioak utzi ezker), erreka desberdinetako ura jasotzeko, pinuaren egurra ustiatzeko eta zergatik ez, egunen batean sortzen den biomasa energia iturri bezala erabiltzeko.

Herrian eta herritarren artean sumatzen dugun kezkekin bat eginez Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak badaki orain egindako kalteak

denbora laburrean naturari pixka bat lagundu ezker errekuiperatuko direla. Guk haratago joan nahi dugu, Andatzaren etorkizunaz ari garenean epe luzera ari gatzatzen, Diputazioa eta Udarekin batera herriko eragile desberdinak parte hartu beharko genukeela bere planifikazioan dena Diputazioaren esku utzi gabe.

Honela egunen batean Usurbilgo herriak Andatza bereganatzen duenerako ustiaketa orekatu eta txukun bat egiteko oinarriak finkatzen hasiak izango gara.

“Alternatiba eraiki behar dugu”



Maiatzaren 30erako deitu den greba orokorra babestu zuten argazkian ageri diren herritarrek.

Egungo politiken norabidea aldatu, bizi baldintza duinen alde agertu eta aski dela esateko, ezinbestekotzat, behar beharrezkotzat jotzen dute ostegun honetarako deitua dagoen greba orokorra, larunbatean frontoian bildu ziren herritar eta eragileek. 24 orduko lan uztea babesteko bildu zen hain zuzen, ondoko argazkian ageri den herritar taldea.

Baita “haratago” joateko ere. “Alternatiba eraiki behar dugu. Beste eredu bat posible dela aldarrikatzetik eredu hori eraikitzea pasa behar gara”, zioten. Eraikitze bide horretarako lehen urratsa ere finkatua dagoela nabarmendu zuten; Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna osatzea. Zioteenez borrokarako baliagarria izango da, “aldarrikatzetik harago joango den tresna izatea nahi dugu. Euskal gizarte osoaren indarra eta garatzen ari garen borroka batzeko lehen

pausoa. Helburu argi batzuen inguruan, bidea osatzen lagunduko dutenak. Ziur gaudela, bide honek Euskal Herriarentzako eta beraz, Usurbilentzako eredu propio batera eramango gaituela, eskubide sozial eta laboralen errespetuan eta justizia sozialean oinarritua”. Ereditu ekonomiko propioa defendatu zuten beraz, “Euskal Herrian eta Euskal Herriarentzat erabakia, eta ez elite ekonomikoek erabakia, gehiengo sozial langilearen parte hartzearekin baino”.

“BETIKOEK ABERASTEN JARRAITZEN DUTE”

Prozesu berri honetako lehen urratsa halere, ostegun honetarako deitua dagoen greba orokorra dela gogorarazten zuten. Egunotarako eta ostegunerako deitu diren mobilizazioetan parte hartzeraz deitzen zituzten herritarrak. Egungo politiken “norabidea aldatzera behartu behar ditugu. Eta modu bakarra borroka eta mobilizazioak dira. Egiten

ari garen bide honek gehien-goia hondamendira garamatza eta badakite”. Krisian are gehiago sakontzea, “betikoeak aberasten jarraitu”, herritarrak pobretu eta eskubideen murrizketa ekarri duten politikak salatu zituzten.

BIZI BALDINTZA DUINAK IZATEKO ESKAERA

Horregatik, “eskubideei egiten ari zaizkien erasoaren aurrean”, behar beharrezkotzat, ezinbestekotzat jotzen zuten ostegunerako deitua dagoen greba orokorra. Besteak beste, bizi baldintza duinak aldarrikatzeko ezinbestekotzat jotzen dute; “Enplegu duina, kalitateko zerbitzu publiko unibertsalak eta prestazio sozial egokien bidez. Krisiaren hasieratik Euskal Herriko gehiengo sozial langilea honen kontra ari gara borrokan”. Ildo horretatik, bizi baldintza duinak euren lehentasun izatea exijitu zieten Euskal Herriko erakundeiei.

Grebarako 4.843 arrazoi Buruntzaldean

4.843, horiek Buruntzaldeko langabetuak. Eta horiek baita, ostegun honetarako deitua dagoen greba orokorrean parte hartzeko arrazoiak direla adierazi duen EH Bilduk, astelehenean Lasarte-Orian. Lanbideko duen egoitza atarira eraman nahi izan zuten, egun bizi dugun egoera, eta baita ostegun honetarako greba orokorrerako deialdia ere. Elkarretaratzea burutu zuten hainbat lagunek, Lanbide aurrean, “4843 arrazoi. Burujabetza eta eraldaketa soziala. M30 greba orokorra” lemapean.

Manifestazioetan parte hartzeko deia

Maiatzaren 30 honetarako deitua dagoen greba orokorrari begira, Usurbilen osatu den Greba Batzordeak hainbat ekimen antolatu ditu egunotarako. Parte hartzera deitzen dute. “Ez gara aspertuko behin eta berriz azpimarratzen, inoiz baino garrantzitsuagoa dela mobilizazio eta batzarretan parte hartzea. Denon artean lortuko dugu”, adierazi zuten herritar eta eragileek, larunbateko agerraldian.

Ostegunerako, goizean batzorra eta egunean zehar bi manifestazio deituak daude; lehena, eguerdian Donostian. Eta bigarrena, arratsaldean Usurbilen bertan. Zehaztasun gehiagorekin, hona hemen, mobilizazioen egutegia:

Maiatzak 29, asteazkena

- 19:00ak aldera, Gazte blokearen kanpaldia frontoian.
- 19:00 Kotxe karabana anbulatortiotik.

Maiatzak 30, osteguna

- Goizean, batzar informatiboa.
- 12:00 Manifestazioa Donostian. Hiru zutabe abiatuko dira, Anoeta, Gros eta Antiguotik. Usurbildarre, Anoetara joateko deia egiten zaie.
- 18:00 Manifestazioa Usurbilen.

25 militanteren identifikazioa salatu du eskualdeko Ernaik

Greba egunari begirako esku orriak banatu eta parodia bat egiteagatik, Ertzaintzak 25 lagun identifikatu dituela salatu du Ernai gazte erakundeak. Gertaerak ostiral arratsaldean jazo ziren. “Decathlonen parodia egin ostean, Urbilera gindoazela, Urbileko sarreran gelditu eta identifikazio lanak abiatu zituen Ertzaintzak”, berri eman zuen Ernaik, osteguneko greba deialdiari babesa emateko, larunbatean frontoian burutu zen agerraldiaren amaieran.

Aipatu moduan 25 lagun identifikatu zituen Ertzaintzak, eta Ernaik berri eman dutenez, “horietako bati espedientea ireki diote, desobedientzia baliatzeagatik”. Parodia eta esku orriak banatuz, “sistema honek gazteok zapaldu eta txiroitzen gaituela” salatu nahi zuten. Ildo beretik, ostiraleko gertaerekin ere salatu zuten, “gure eskubideak aldarrikatze-



Buruntzaldeko EH Bilduk ere greban parte hartzeko deia egin du.

ERNAI

“Gure eskubideak aldarrikatzeagatik behin eta berriz zapalduak izaten ari gara”

agatik, behin eta berriz zapalduak izaten ari gara, nahiz eta garai berrietan egon”. Ertzaintzaren jarrera salatu eta oste-

guneko greba orokorrerako deialdiarekin eta abiatuko den plan sozialarekin bat egiten dutela berretsi zuten. Jendar-teari ere, beste hainbeste egiteko gonbita luzatu zioten; “Gazteei, eskualdeko herritar orori eta Ertzaintzari zergatik ez, greba orokorrean dinamikoki parte hartzeko deia egiten diegu. Gora euskal gazte-ria!”.

Maiatzaren 30ean hondakin bilketarik ez, ikastola itxita...

Pertsianak jaitsita esnatuko dira ostegun honetan, herriko saltoki, taberna, jatetxe eta hainbat enpresa, gehiengo sindikalak deitu duen greba orokorra dela eta. Eguneroko zerbitzuetan ere etenaldia sumatuko da. Hondakin bilketan esaterako. Egunotan udal langileek etxe atarian jarri dituzten oharretan gogorarazten denez, ostegun honetan ez da hondakin bilketa zerbitzurik izango. “Udal langileek eta Garbitania Zero Zabor S.M.-k ELA eta LAB sindikatuek deituriko greba orokorrarekin bat egitea erabaki dute. Ondorioz, maiatzaren 30ean ez da hon-

dakin bilketarik egingo. Egun horri dagokion hondakin organikoaren bilketa hurrengo larunbatean egingo da, ekainak 1ean. Herritarrei, ostegunean, maiatzak 30ean, hondakinik atera ez dezaten dei egiten zaie”, ohartarazi dute.

IKASTOLAN KLASERIK EZ

Greba orokorrarekin bat egingo dute baita Udarregi Ikastolako langileek. Honenbestez, maiatzaren 30ean klaserik ez dela izango gogorarazten dute, udarregi.com web orrian zintzilikatu duten oharren bidez. “Jakinarazi nahi dizue-

gu, Udarregi Ikastolako langileak datorren maiatzaren 30erako eginda dagoen greba deialdiarekin bat egiten duela. Beraz, maiatzaren 30ean ez da klaserik izango”, berri eman dute.

NOAUA!ko langileok ere bat egingo dugu ostegun honetarako deitua dagoen greba orokorrarekin. Kultur elkarte-ko egoitza itxita izango da beraz. Web orria ez da berrituko. Greba egunak emandakoaren berri, biharamunean emango dugu noaua.com atarian, maiatzaren 31n honenbestez. Eta ekainaren 7ko aste-karian.

Euskal Herriko Gutun Soziala eratzeko lehen batzarra egin zen Eibarren

Pasa den larunbatean elkartu ziren lehen aldiz. Helburua: Euskal Herriaren neurriko Gutun Soziala eratzeta. Lehenengo eta behin, gutunaren sortzearen zergatiak eztabaidatu eta sakondu ziren. “Abiapuntu bezala, Euskal Herrian aplikatzen ari diren politika neoliberaletan goitik-behera aldatzea eta eraldaketa politiko eta soziala bultzatzea ezinbestekotzat jo zuten bertaratutako eragileek”, LAB sindikatuak bere web orrian adituzera eman zuenez.

Ahalik eta partehartzaileena

Gutun sozialak gehiengo sozial baten mesedetan egongo den eredu berri bat definitzeko beharrezkoak diren proposamen eta alternatibak jasoko lituzke. Era berean, Euskal Herriko erakunde ezberdinak interpelatzeko tresna litza-teke, ezartzen ari diren politikak alda ditzaten.

Gutunaren eraketa prozesuan ahalik eta parte-hartze sozial zabalea eta anitzena bermatu nahi da. Horretarako, Euskal Herriko herritar guztiek parte-hartzeko esparru antolatutak izan ditzaten gutunaren sortze prozesuan erabiliko den metodologia ere proposatu zen Eibarko asanbladan.

Gutuna, abendurako

Gutuna osatzeko prozesua urte bukaerarte luzatuko litzateke. Ekainean proposatu den metodologia onartuko litzateke. Ondoren, urriaren 5erako aurreikusitako asanbladan gutunaren lehenengo zirriborroa ontzat emanez gero, zirriborro horrekin eskualde, herri eta sektoreetan zabalduko litzateke eztabaida, eta jasotako ekarpen eta iritziekin gutuna abenduaren 14an itxia proposatu da.



Eibarren egin zen lehen bilkura.

Zaintzaileak zaintzen

Doako ikastaro bat antolatu dute Gizarte Zerbitzuetatik

Zenbat lagun ari ote da egun, mendekotasuna duen bikote laguna, ama, aita... zaintzen. Isilpeko lan ikusezina burutzen dute egunerokotan, zaintzen ari diren gertuko senideak ahalik eta bizi kalitate onena izan dezan. Ondotan izan eta laguntza behar duen senideari nola lagundu asmatzea, eginkizun hauetarako behar beste baliabide tekniko eskura izan edota emozionalki zaintza lan horri aurre egiteko indartsu egotea ordea, ez da beti erraza izaten.

Nork zaintzen du bere bizi-modua gertukoak laguntzera bideratzen duen zaintzailea? Zaintzailea babestu, eta zaintzen ari den adineko senideari arreta hobea emateko laguntzera dator, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen Sendian programaren baitan, Gizarte Zerbitzuetatik ekainetarako antolatu duten doako prestakuntza ikastaroa. Zaintzailea zaindu beharra baitago, zaintzaileak bere zaintza lana ere egoki bidera dezan. Ekaineko lehen hamabostaldian burutuko den lau saioko ikastaroa, etxean mendekotasuna duten adineko pertsonen zaintzaileei zuzendua dago. Formazio ikastaroa da. Eta bertan, mendekotasun egoeraren den senidea nola zaindu, zaintzaileak bere burua ere berdin, nola zaindu dezakeen ikasteko aukera aparta egon-



Karmele Gurrutxaga psikologoak bideratuko du prestakuntza ikastaroa.

go da. Zaintzailearen lan karga eta autozaintzarako estrategiak, sentimenduen kudeaketa, zaintzarako teknikak eta mendekotasuna duten pertsonetikiko komunikazioa...gai hauetan eta beste batzuetan sakonduko da.

PRESTAKUNTZA PROZESUAREN HASIERA

Potxoenean ekainaren 4, 5, 11 eta 12an burutuko den ikastaroa, Karmele Gurrutxaga psikologoak bideratuko du. Izen ematea irekita dago ekainaren 3ra arte. Interesdunek, Gizarte Zerbitzuetara deitu baino ez dute. Hauxe, bertako telefono zenbakia: 943 377 110. Formazio eskaintza hau doakoa da.

Hurrengo astean abiatuko den ikastaroa, prestakuntza prozesu baten hasiera baino ez da. Gizarte Zerbitzuetatik, egitasmo honi udazkenean jarraipena ematekotan baitira. Prozesu honetan zehar, zaintzaileek mendekotasun legearen oinarritzko ezagu-

tzak jaso ditzakete, mugikortasunari begira dauden laguntza tekniko berri izan, tutoretza gaiak landu, eta sarri, zaintzaileak gainean daraman "zama" emozionala arintzeko laguntza psikologikoa ere jaso dezake.

'SENDIAN' PROGRAMA

Sendian programaren baitan antolatu da ekaineko ikastaro hau. Baina formazio saio huez gain, zaintzaileentzako laguntza gehiago ere eskaintzen du Sendian egitasmoak. Adibidez, senideek eurentzat denbora, atsedeen hartzeko tartea izan dezaten, mendekotasuna duen adineko pertsona egoitza batera eramateko aukera dago. Oporraldietan, edo egun batzuetarako. Ordu batzuetarako baldin bada, senideek helburu berarekin, Usurbilgo Eguneko Zentroa ere baliatu dezakete. Etxean egon daitezkeen oztopo arkitektonikoak ezabatze-ko laguntzak eskatzeko aukera ere ematen du.

Laguntza eskaintza zabala

Ekaineko ikastaro honekin abiatu eta uda ostean jarraipena emango litzaikeen prozesuaren amaieran, asmoa herrian talde bat osatzeari litzateke. Maiztasun batekin bilduko litzatekeena. Profesional batek bideratuko luke, eta zaintzaileen bizipen eta esperientziak elkar trukatu eta talde kideekin partekatzea bultzatu nahiko litzateke bilgune honetan.

Duela bi urte antolatu zen Gizarte Zerbitzuetatik, alor honetako beste ekimen bat. Formazio esperientzia hartan parte hartu zutenek, oso lagungarritzat jo zuten bertan ikasitakoa. Gizarte Zerbitzuetan, zaintzaile lanetan jardun eta formazio ekimen hauetan parte hartu izan dutenek aldeia sumatu dutela nabarmentzen dute. Ondo edo gaizki ari diren zailantza egitetik, urduritasuna izatetik, lasaitasun handiagoz hartzen dutela euren zaintza lana. Ez direla baka-rrik sentitzen. Norberak bizitakoa, ikastaro horretan parte hartzen ari den beste zaintzaileei ere gertatzen zaiela jabetzen direla. Eta euren jarduna, batzuetan iruditzen zaiena baino hobeto egiten ari direla. Formazio prozesu hau ere baliagarria da noski, hobetu daitezkeen hori ere hobetzeko. Laburbilduz, eguneroko zaintza lana erraztu, zaintzen ari diren pertsonari arreta hobea eskaini eta zaintzaileak ere bere burua babesteko laguntza eman nahi da.

Izen ematea irekita

Saioak: ekainak 4, 5, 11 eta 12.

Ordutegia: 15:00-17:30.

Tokia: Potxoenea.

Izen ematea: doan, Gizarte Zerbitzuetan, 943 377 110.

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Ziklobia, gurpil gainean

Igandekoa egun ezberdina izan zen Zubietan. Olatu Talkakoek aditzera eman dutenez, jai-giroa ezin hobeia izan zen. “Eguraldi bikainarekin hasi genuen eguna goiz goizetik”. Iba-etatik Zubietara arteko Ziklobiarekin 35

jarduera ezberdin antolatu ziren. Estrainekoz, Ibaeta eta Zubietan elkartzen dituen errepidea itxi egin zen motordun ibilgai-luentzat, eta oinezkoentzat, bizikleta, patin edo motorrik gabeko beste edozein garraiobiderentzat soilik izan zen erabilga-

rri. Ekimen honi esker, errepideaz gozatzeko aukera aparta izan zuten herritar askok. Eguerdirako, jendetza bildu zen Zubietan. Olatu Talkaren Ziklobiak izan zuen arrakastaren erakusgarri dira ondoko argazki hauek.



Eguraldi onari esker, lagun asko elkartu ziren Zubietan, Ziklobiaren “helmugan”.

Irakurketa topaketa antolatu nahi da Sutegin

Euskarazko irakurketa-topaketa bat prestatzeko asmoa du Sutegiko Udal Liburutegiak. Ekainean egin nahi da, eta 16 urtetik gorako irakurleei zuzendua. Interesa duzenok, liburutegiko harreran jasoko duzue informazio gehiago.

Gidaria Pako Aristi izango litzateke eta berak proposatutako liburuaren ale ezberdinak

Liburutegiak eskuratuko lituzke interesa duenarentzako, saioa baino aste batzuk lehenago; “izan ere, liburuak aldez aurretik irakurritz gero, etekin handiagoa aterako baitiugu topaketari”, Sutegitik aditzera eman dutenez.

16 urtetik gorako irakurleei zuzendua, ekainean izango litzakete topaketa, astegunez eta arratsalde-ilunabarrean. Parte hartzeko gogoz bazabiltza, li-



16 urtetik gorako irakurleei zuzenduta dago egitasmoa.

burutegiko harrera-gunera jo eta han eman izena.

Mundumob entseguak Zubietan

Herriz herri burutzen ari den Mundumob ekimena, Gipuzkoa mailakoa izango den saioarekin amaituko da ekainaren 8an, Donostian. Horren harira, Zubietan Lantzenek dantza saioa ikasteko entseguak deitu ditu asteotarako. Hurrengo entsegua ostiral honetan burutuko da, 19:00etan Eskola Txikian. Eta azken prestaketa saioa ekainaren 7an, ordu eta leku berean.

Imanol Urbietaren omenez

Urteetako ahalegin eta ilusioari esker, antolatzaileek dioten moduan, Usurbilen ospatzen diren ekitaldi klasikoan artean dugu. Herri honetako belaunaldi oso bateko kide gehienek parte hartu dute, ehunka haurrek, mende laurdena bete duen Ikastola Egunko Haur Hezkuntzako ikuskizunean. Igandean, 12:00etan Oiaro Kiroldegian ospatuko dute 25. urteurrena, ikastolarentzat erreferente bat izan den Imanol Urbietak kantagilea omenduz. “Imanol Urbietak haurraren munduan makina bat lan eta grabazio eginak ditu eta zer hobeto omenaldia haurra berak eskaintzea baino?”, diote Udarregitik.

Emanaldiak ospatzeko ideien abiapuntua zein izan zen?

Udarregiko HH-ko irakasleak. Kalezarren, udaberrian gauza asko egiten genituen. Kantuan eta dantzaz aritzen ginen, baina ikuskizunik ez genuen antolatzen. Talde batek egiten zuen, ez denak batera. Orduan, denok batera zerbait antolatzea bururatu zitzaigun. Euskal Telebistara deitu eta dena grabatzera etorri ziren.

Usurbildik kanpora ere zabandu zen beraz lehen ikuskizun hura?

Ikaragarria izan zen. Gero emititu zuten, gordea dugu. Prozesu osoa grabatu zuten; haurrek jantziak nola egiten zituzten, muralerako marrazkiak, entseguak eta ikuskizun bera.

Atzeko lanketa ere badu ikuskizunak, ikusten ez dena.

Aste Santu ostean hasten gara prestatzen. Lehenbizi musika



“Haurrentzat makina bat lan eta grabazio eginak ditu Imanol Urbietak”.

“Haur Hezkuntzako ikasleen ikuskizunean Imanol Urbietak omenduko dute Udarregiko ikasleek eta irakasleek”

da ardatza. Gai bat aukeratzeko dugu eta gero, maila bakoitzerako kantak aukeratzeko ditugu. Hasieran oso ideia abstraktua da, baina gerora itxura hartzen doa. Gaia zein den jakinda, horren inguruan antolatzen eta lantzen hasten gara; horma irudirako marrazkiak egiten, bizitzen...

Nola hautatzen duzue musika?

Askotan gaia ere ez da hartzen aurrena. Musika asko entzun behar da. Uneren batean etortzen da inspirazioa. Musika horrekin antolatzen da gaia eta gainerakoa.

Urteotan, ikuskizunaren tamaina handitzen joan da. Nola bizi izan duzue eboluzio hori?

Guretzat urterokoa, lan berdina da, ekitaldia bera da. Baina toki desberdinetan desberdin ikusten da. Kiroldegia toki itxia izanda egun, musika hobeto entzuten da, haurrak ere askoz hobeto daude, ez dira

hainbeste galtzen. Antzoki kutsua hartzen du Kiroldegiak. Bildua da eta gainera, geureganatu egin dugu. 14 metroko horma irudia egiten dugu, gauza gehiago jartzen ditugu. Eta gero musika da, dena biltzen duena. Urtero gainera, musika berarekin hasi eta bukatzen da eta urtero hunkitzen gara musika horrekin. Ikaragarri.

Eta nola ikusten dituzue bertaratzen diren haurren sende eta lagunak?

Umeei gaudenez, ez gara jabetzen. Egia da bukaeran, asko etortzen direla eskertzerara eta emanaldia ze polita izan den esatera. Gerturatzeko diren horiek hunkituta ikusten dira. Emakume batek esaten zigun behin, sentitzen zuela baina ezin zuela gure ikuskizunak ikustera etorri. Musikak negar gurea ematen ziola emanaldi hasieran eta ikustera joateri utzi ziola. Beste batzuen kasuan, pena sentitzen dute. HH amaitzeaz zuten bi umeren senide bat, urtebete barru emanaldira ikustera ezingo zuela etorri zioen behin. Aiton amonak ere oso urrutitik etorri izan zaizkigu, opor egunak albo batera utzi eta bilobak ikuste-

ra. Emozioa handia da.

Haurrentzat, inpresioa handia Kiroldegira sartu eta bat batean hainbeste jenderen aurrean topatzea?

Bai, baina inauterietan ere aurretik aritu direnez, badakite zer den. 3 urtekoentzat zer den, inauterietan pasea izaten dute. Jendearekin egoten dira eta oso ondo gainera. Emozioa bizitzen dute haurrek. Batez ere 5 urtekoek, kontziente direnean zer ondo egiten duten. Umeei halako ikuskizunetan egoten ikasten dute. Jendearen aurrean, bere beldurak gainditu egiten dituzte, lotsa... dena. Oso interesgarria ikusten dugu guk. Gurasoek ezustekoak izaten dituzte emanaldira, seme-alabak ikusita. Nola egoten diren, adi-adi gozatzen, emanaldia luzea izan arren.

Esperientzia, kasu honetan ere erabakigarria izango da?

Prozesu bat da. Lehen 2 urtekoak, emanaldian ibili egiten ziren. 3 urtekoak pausoak erritmo gehiagorekin, 4 urtekoak jada dantza eta 5 urtekoek, gozatu egiten dute. Eboluzioa ikusten da, 2 urtetik 5era. Dantzak ere eurei egokitutakoak izaten saiatzen gara. 2 urtekoak ikusten bagenituen gurasoena alde egiten zutela, joaten uzten genien. Natural. Emanaldi honi grazia gehiena, naturaltasunak ematen dio. 5 urtekoen kasuan, entseguak serioago egiten dituzte eta gurasoen aurrean jakin behar dute ondo dantza egiten. Behin automatizatzen dutenean, ondo egiten dute. Haurrek ere zerbait egin dezaten saiatzen gara. Agian jantzi guztia, edo detaileren bat. Hor ere, emanaldiko parte sentitzen dira eta horretan ere asko gozatzen dute.

“Umeentzat erreferente bat da”

25. urteurrena, berezia. Imanol Urbietaren omenduko duzue? Zergatik?

Udarregiko HH-ko irakasleak. Ikastola sortu genuenean, musikari eman nahi genion garrantzia, bizitzarako hain garrantzitsua izanda. Imanol Urbietarena joatea erabaki genuen. Berak esan zigun bazuela lan honetan oso ondo arituko zen norbait, Jaione Eskudero. Imanolen jardun hori oso egokia ikusten genuen, baloratu egiten genuen. Kanta asko eta asko bereak dira. Jaione etorri zitzaigun eta guk ere piloa ikasi dugu. Imanol bera etorri zen behin, musika pedagogiari buruz hitz egitera. Bere ildotik jarraitu dugu lanean.

Imanol Urbietaren pedagogiak zer berezitasun ditu?

Imanolek musika beti, esperientziarekin lotuta ikusi du. Umeak bizi behar du, momentu giro batean, berak sortu duen bezala. “Lanroberra” abestiarekin bezala. Errea ahoskatzeko arazoarekin sortu zuen abesti hau. Umeak mugimendua behar du, behar du



Imanol Urbietaren musika baliatuko dute igandeko ikuskizunean.

erritmoa sentitu, kantarako. Adierazpen bat da, barru barrutik irten behar duena. Musikaren bidez adierazpen horiek kanpora ateratzen laguntzen dugu, umeak konturatu gabe noski.

Imanolek eginiko ekarpena handia da, ezta?

Dudarik gabe. Umeen musika aldetik erreferente bat da. Irakasten gabe izan denok Imanol Urbietaren abestiak ezagutzen ditugu. Bera da gure erreferentea.

Urbietak ikastolari eginiko ekarpena, nola islatu asmo duzue igandeko emanaldian?

Bere musikaren bidez. Emanaldirako musika klasikoa, aukeraturiko gaiari loturiko edozein musika erabiltzen dugu. Aurten gainera, Wagner jaio zeneko 200. urtemuga ere bada. Gure sintonia berari lotua dagoenez, berarekin hasiera emango diogu ekitaldiari. Eta jarraian, Imanol Urbietaren musikarekin egingo dugu dena.

Egun pasa igandean

Maiatzak 29, asteazkena

■ 18:30 HH5 eta LH 5eko kanta-gintza saioa Sutegin.

Maiatzak 31, ostirala

■ 17:00-18:15 Haurrentzako jolasak, Gaztetxearen laguntzarekin.

■ 18:15-19:00 Txokolate egin berria haurrentzat.

■ Ondoren, buruhandi txikien desfilea (haurrek etxetik ekar ditzakete dituzten buruhandiak).

■ 22:00 “Euskararen espektakulue” emanaldia Sutegiko auditorioan.

■ Sarrerak: 2 eurotan alde aurretik Bordatxon, 4 eurotan egun berean. Antolatzailea: Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte.

Ekainak 2, igandea

■ 9:00-11:30 LH eta DBHko ikasleekin jolasak ikastolako patioan.

■ 10:00-13:30 Teknologia eta eskulanen erakusketa ikastolan.

■ 12:00 HH-koen ikuskizunak 25 urte, Oiaro Kiroldegian. Imanol Urbietari omenaldia.

■ 14:30 Bazkaria frontoian. Sarrerak salgai Ikastolako idazkaritzan.

■ Ondoren, dantzaldia.

■ Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Bazkaritarako txartelak salgai

Igandeko Ikastola Egunezko bazkaritarako txartelak salgai daude Udarregiko idazkaritzan. Bazkaritarako bi menu prestatuko dituzte; bat helduentzat, bestea haurrentzat. Helduena, 15 eurotan eta menua hauexek izango da: paella, kokots-uhala, postrea, kafea eta kopa, edariak eta ogia. Haurrentzako menua berriz, 7 eurotan jarriko dute: makarroiak, solomoa eta chips patatak, postrea, edaria eta ogia.

Ikastola Egunezko bazkarian berrikuntzak txertatu dituzte antolatzaileek, Udarregiko web orritik berri eman dutenez. “Aurten berrikuntza bezala eta giro alai eta hurbilago bat sortzeko gurasoek prestatuko dute bazkaria, horretarako, zuen laguntza-eskaera egiten da hainbat lantaldeetan parte hartzeko: garbiketa, muntaketa, janari prestatzea, janari banaketa... Animatu zaitezte!!!”, egin dute deia ikastolatik.

1989tik, etenik gabe

Euskal Telebistak erakutsi zuen, Udarregi Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleen estreinako ikuskizuna; “Udaberria” izenekoa. Emanaldia bera, eta aurretik egin behar izaten den prestatuntza lan osoa plazaratu zuen ETB-k 1989. urtean. Hedapen harekin abiatu zuen Udarregik, hutsik egin gabe, Ikastola Egunez urtero eskaini duen ikuskizuna. Udarregi Ikastolako patioan lehenik, Oiaro Kiroldegian 1992az geroztik. Hauexek urtez urte, Haur Hezkuntzako antolatutako ikuskizunen izenburuak:

1989- “UDABERRIA” (ETBk grabatua)
1990- “HERRIKO FESTA”
1991- “AFRIKA”
1992- “ITSASOA”
1993- “EUSKAL JAIA”
1994- “UDARREGI FILM”
1995- “MENDIA”
1996- “ZIRKOA”
1997- “JOSTAILUAK”
1998- “ORTZIA”
1999- “LANBIDE-LAN” (Eta gu handitan zer?)
2000- “KONTU KONTARI KANTA KANTARI”

2001- “GARRAIOAK”
2002- “ITSAS BARRENA”
2003- “HAI-SU, UR-LUR” (4 ELEMENTUAK)
2004- “UDARREGI PARK”
2005- “UDARREGI JATETXEA”
2006- “ERDI AROA”
2007- “BOLON BAT ETA BOLON BI”
2008- “NOR DA INDARTSUENA?”
2009- “MAKRO EKITALDIEN 20. URTEURRENA”
2010- “GU ERE BAI!!!”
2011- “SUSTARREGIKO FRUTAK”
2012- “DATORRENARI, AGUR!!!”
2013- “IMANOL URBIEARI ESKER”

Uda parterako hiru ikastaro ezberdin iragarri ditu Yolanda Arrietak

Aurretik ere hainbat ikastaro eskainitako da Yolanda Arrieta. Zentzu horretan, badu eskarmentua eta esperientzia. Uda honi begira, hiru ikastaro prestatu ditu. "Azken hogeitorteko lana eta materiala bildu nahi izan dut hiru ikastarook antolatze-ko orduan", adierazi digu. "Niretzat, bilketa eta antolaketan lan hori, ariketa praktikoa izateaz batera, uda partean lana ez eteteko modua ere bada". Eskarmentuari etekina ateratzaz batera, datozenei eta ari direnei eskarmentu hori transmititzeko bidea ere bai, jakina. Hiru ikastaroen xehetasunak eskaini dizkigu ondo-ko elkarriketan.

"Zelan kontatu ipuinak eta olerkiak haurrei, Nitik Gura" ikastaroa eskainiko duzu ekainaren amaieran Bilbon, Arte eta Kultura Uda Ikastaroen baitan. Ahozkitasunean erreparatuko duzu bereziki ala haratago doa ikastaroa?

Yolanda Arrieta. Aspaldiko jakintsu batek esan omen zuen hiru motatako elikagaia behar dugula pertsonok aurrea egiteko: jana gorputza asetzeko, lagunak bihotza alaitzeko eta kontuak arima sosegatzeko.

Lema horri jarraituz, gu ere oinarritzko behar izanak asetzeko bidean jarriko gara, goiz bitan, gosaritik bazkarirako tartean. Eta lagun artean egingo dugu, oinarrietara itzuliz, begiradekin batera isiluneen hatsa eta hitzen arnasa berreskuratuz.

Heldu artean jardun arren, oinarri-oinarrietatik hasiko gara osteraren ere, izan ginen haurraren arnasa itzuliz, euskararen doinu eta koloreak suspertu ahala, berezko baliabideei



Hiru ikastaroen xehetasunak eskaini dizkigu Yolanda Arrietak.

YOLANDA ARRIETA

"Jakintsu batek esan omen zuen. Hiru motatako elikagaia behar dugula pertsonok: Jana gorputza asetzeko, lagunak bihotza alaitzeko eta kontuak arima sosegatzeko"

hautsak astinduz, oinarritzko bezain premiazko emozio bat indarberrituz: ilusioa.

Uztailean eta UEUren esku-tik, "Euskal haur eta gazte literaturaz, zer dakigu?" ikastaroa eskainiko duzu Baionan. Soilik ikasle jendeari zuzendua egongo al da?

Y. A. Helburua da gaurko Euskal Haur Literatura hobeto ezagutzeko eta jarraitzeko bideak eskaintzeaz batera, partaideen artean emozio, estetika eta zentzuen bidezko giroa bultzatzea euskaraz, liburuak lagun direlarik.

Horretarako, praktikatik teoriara salto eginez arituko gara, informazioa norberaren galbaretik pasatuz eta haur literaturaren oinarritzko ezaugarriak berrindartuz: emozioa, ilu-

sioa, komunikazioa, magia.

Batik bat, haurrekin harreman zuzena dutenentzat eratuta dago: gurasoak, irakasleak, liburuazainak, zain-tzaileak, begiraleak, Haur Hezkuntzako ikasleak, kultur-dinamizatzaileak... Baina Haur Literatura gustuko dutenentzat edo Haur Literatura hobeto ezagutu nahi duen ororentzat ere irekita dago.

"Idazketa sortzailea gelan, Nitik Gura". Izenburu hori du Miramar jauregiko Uda-ko Ikastaroetan eskainiko duzun tailerrak.

Y. A. Iaz egun bakarra eskaini nuen, frogatuta gisa. Ondo ateratzen zenez, aurten, batik bat, hezkuntzara begira planteatu dut, baina inori aterik itxi gabe, sortzaile izateko ahalmena gurekin datorelako jaitxo garenean. Ahalmen hori erabili edo ez erabili -eta erabiltzekotan, zertan eta nola erabili-, hori bakoitzaren esku dago. Guk idazketaren bidez sortzeko ahalmena nola trebatu, nola entrenatu landuko dugu, nitik gura, banakotik besteen-gana.

Zelan kontatu ipuinak eta olerkiak haurrei, Nitik Gura

Bizkaia Bilbo Arte eta Kultura uda ikastaroak. Bilbo

BBK Etxea Esperientzia Gelak (Alde Zaharrean)

Banco de España kalea, 2- Bilbo- (1. solairua-2. gela)

■ Egunak: Ekainak 27, 28.

■ Orduetgia: 9:30-14:00.

■ 94 691 71 11 / 44

www.nitikgura.com

Euskal haur eta gazte literaturaz, zer dakigu?

UEU. Baiona

Baionako Unibertsitatea. Gaztelu Berria. Paul Bert Enparantza.

■ Egunak: Uztailek 10, 11.

■ Orduetgia: 9:00-12:30/14:30-17:00.

■ 943 82 14 26 / i.iciar@ueu.org

www.nitikgura.com

Idazketa sortzailea gelan, Nitik Gura - I - Dinamika, abiapuntuak eta baliabideak

XXXII Uda Ikastaroak. Donostia

Miramar Jauregia.

■ Egunak: Abuztuak 26, 27, 28.

■ Orduetgia: 9:00-14:00

■ 943 21 97 51

udaikastaroak@ehu.es

www.nitikgura.com



Ikastaro bakoitzak bere bereizgarria dauka. Hiruetan dago izena emateko epea irekita oraindik.

Hondakinen kudeaketa sektorea, lanpostu sortzaile

Gogotsu, ikasitakoa praktikan jartzeko prest aurkitu genuen aste hasieran, ondoko argazkian ageri den lagun taldea. Apirila hasieratik, hiri hondakin eta hondakin industrialen alorreko prestakuntza teorikoa jaso dute. Orain lan praktikoa burutuko dute hurrengo hilabeteetan. Donostialdeko udalek eta Lanbidek sustaturiko enplegu prestakuntza programa batean parte hartzen ari dira guztiak. Profesionaltasun ziurtagiri bat jasoko dute amaieran. Esperientzia, ezin lagungarriagoa egiten ari zaie, lan bila zebiltzan sei lagun hauei. Haiekin batera argazkian da, Joana Larrea, prestakuntza saioak bideratu dituen hezitzailea. Berak eman dio NOAA!ri, egitasmo honek orain arte eman duenaren berri.

Zer eduki jorratu dituzue prestakuntza saioetan?

Joana Larrea. Prestakuntza hiru blokeetan banatua egon da; hiri hondakinak, hondakin industrialak eta segurtasuna. Hirugarrena ordu aldetik gutxiena dituen izan da, beste biek ordu gehiago. Hiri hondakinen inguruan, hondakin atal desberdinak bereizten, zeintzuk diren hiri hondakinak eta zeintzuk ez, Garbigunera zer eraman behar den eta zer ez... ikasi dugu. Praktikotasunera enfokatu nahi izan dugu, Garbiguneko langilearen, atez ateko biltzailearen edo ontziak biltzen dituen kamioi gidari baten azalean sartuta. Lehenengo bloke hau, Atallun eman dugu. Herritik zehar ibili ahal izan gara, sailkapena zer moduz egiten zen ikusteko. Auzo konpostaguneetara eta Garbigunera sartu ahal izan dugu. Bigarren blokean, hondakin industrialak zeintzuk diren jorratu dugu. Adibidez, bereizten zeintzuk diren industrialak eta zeintzuk ez, nolakoak diren hondakin horiek, zer ezaugarri dituzten, eta nola tratatu eta kudeatzen diren. Praktikotasunari begira, berriro ere langile desberdinen azalean sartzea izan da helburua. Adibidez, zabortegei bateko baskula kontrolatzen dagoen langile baten azalean sartu gara eta kamioi bat hel-



Argazkian, Joana Larrea hezitzailea eta prestakuntza ikastaroan parte hartu duten kideak.

JOANA LARREA

“Europako legeek eta bai gurek ere, geroz eta hondakin gehiago birziklatzera bultzatzen gaituzte”

tzerakoan zer egin beharko lukeen ikusi dugu, edo kamioi horren gidariak zer dokumentazio eraman behar duen... Segurtasunari buruzko prestakuntza, nahiko teorikoa eta orokorra izan da. Gero, lanpostuetan izango duten segurtasunari buruzko formazio zehatzagoa jasoko dute.

Praktikotasuna, prestakuntza saioen ezaugarri nagusietako bat?

Zazpi ordu izan dira egunean. Zazpi ordu teoria ematen, ezin da egon. Nahiz eta eduki teorikoak eman beharra izan, praktika ezberdinak egin ditugu, teorikoki eman duguna finkatzeko edota praktikotasunetik hasita teoria bultzatzeko.

Hondakin sortzaile izateak sei lagunentzako prestakuntza lana ere erraztuko zuen? Aurretik norberak alor honetan zuen ezagutza ere lagungarria izango zen?

Hiri hondakinetatik hasteak lagunetzen du. Neurri batean edo bestean pertsona guztiak gara hondakin sortzaileak. Etxean ditugu, badakigu zer

den zer, batzuk gehiago bestek gutxiago. Baina kontzeptu horiek guztiak ez da horren zaila barnerraztea.

Ikasleek jaso al dute herritarrek, egunerokoan hezitzaile gisa aritzeko prestakuntza?

Suertatu da sei ikasleetatik lau, atez atekoa egiten den herrietan bizi direla. Oso barneratua dute, hondakin atalak zeintzuk diren, zer doan nora. Eta hori dena oso barneratuta izan

dute. Badaude prest edozeini lagunertzeko, irakasteko.

Krisi egoera honetan, zer tarte du horrelako prestakuntza programa batek egungo lan merkatuan?

Erabilgarria da. Gauden egoeran egonda, egitasmoaren sustatzaileek ikusi dute hondakinen arloa lanpostu berriak sortzeko eraginkorra izan daitekeela. Azken finean, bai Europako legeek eta bai gurek ere geroz eta hondakin gehiago birziklatzera bultzatzen gaituzte. Normala da lanpostuak sortzea, instalakuntzak, plantak eta langileak behar dira, gure hondakin guztiak birziklatu eta tratatu ahal izateko. Erabilgarria ehunetik ehun, ikuspuntu horretatik.

Profesionaltasun ziurtagiria jaso dute ikasleek. Zertarako gaituko ditu ziurtagiri horrek?

Hiri hondakin eta hondakin industrialen kudeaketa alorreko profesionaltasun ziurtagiria izango da. Beraz, hiri hondakinak eta hondakin industrialak tratatu edo birziklatzen duten edozein enpresatan, beste pertsona batzuen aurrean, onurak izango dituzte lanpostu batera aurkezterakoan.

Enplegu prestakuntza programaren ezaugarriak

- Prestakuntza alorra: hiri hondakin eta hondakin industrialen kudeaketa.
- Nori zuzendua: Donostialdea Mendebal eskualdeko langabezian diren sei lagunei.
- Hautaketa prozesua: Lanbideren bidez egin da. Lanbiden izena emanda eta baldintzak betetzen zituazten artean, elkarrizketen bidez hautatu dira.
- Bete behar ziren baldintzak: 45 urtetik gora edo/eta luzaro langabetuak, 30 urtetik beherakoak izatea eta kualifikaziorik gabekak, edo ta RGI delakoa jasotzea.
- Programaren antolaketa: %30 formazio teorikoa (270 ordu), %70 lan praktikoa (525 ordu).
- Egutegia: formazio teorikoa apirilaren 2tik maiatzaren 27ra; lan praktikoa maiatzaren 29tik aurrera.
- Lan praktikak (errotazioz, sei langileek jarduerok egingo dituzte): Garbitarian, auzo konpostaguneetan, Usurbilgo kaleetako hondakinen bilketa zerbitzuan, Urnieta-ko sailkatze plantan, Garbiguneetan.
- Enplegu prestakuntza programa honen sustatzaileak: Donostialdea Mendebal eskualdeko Udalerriak (Usurbil, Urnieta, Astigarraga, Hernani, Andoain, Lasarte-oria) eta Lanbide.

Plaza denak bete eta zozketa egin behar izan da Udajolasen

1 30 plaza zeuden Udajolasen baina izen-emate kopurua aise gainditu zen. 140tik gora izan dira aurtengoan animatu direnak. Honenbestez, eta Udalak hala erabakita, aurtengo Udajolaseko plazak zozketatu egin dira. Zozketa astelehenean egin zen Potxoenean. Zozketa egin ondoren, Udajolasetik kanpo geratu diren haurrak itxarote zerrendara igaro dira. Azken orduan hautatua izan den haurraren batek atzera egin-go balu, edo dagokion epean ordainduko ez balitz, itxarote zerrenda hartuko da kontuan.



Plaza lortu dutenek ekainaren 4ra arteko epea dute ordainketa egiteko.

4-12 urtekoentzat

Usurbilen erroldatutako 4-12 urte arteko haur eta gaztetxoek parte hartu ahal izango dute euskara eta aisialdia lortzeko dituen ekimen honetan. Hau da, HH3-LH6 maila artean ikasten dabiltzanek.

Ordaintzeko epea: ekainaren 4ra arte

Zozketaren ostean, Udajolasen plaza ziurtatua duenak, ekainaren 4ra arteko epea izango du ordaindu eta horren ordainagiria NOAUA!ra ekartzeko. Epez kanpoko ordainketarik ez da onartuko.

Aurtengo kuota, 79 euro

79 eurokoa da. Familia ugarien kasuan, 63 euro (ahaztu gabe, txartelaren kopia ekarri).

Udajolas uztailaren 3tik 30era burutuko da. Goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean.

Ekainaren 13an, bilera Udarregin

Uztailaren 3tik 30era burutuko diren udalekuen inguruko informazioa jasotzeko bilera antolatuko dute NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak. Hitzordua, Udajolasen plaza lortu duten haurren gurasoei zuzendua dago. Bilera, ekainaren 13an izango da, arratsaldeko 17:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko azken egunak

2013-2014 ikasturtean Zumarte Musika Eskolan ikasi nahi duenak, ostiral honetara arte, maiatzaren 31ra arte du matrikulatzeko aukera.

- Ordutegia: 11:00-13:00 eta 16:30-19:30.
- Ikasgaiak: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpetak, saxofoia, biolina, biola, biolontxeloak, perkusioa, klarineta, abesbatza, teknika boka-

la, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistuak, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak.

- Oharra: ordainketa egitea ezinbestekoa da, matrikulatu ahal izateko. Aipatu egunetan izena ematen ez duenak plaza galduko du.
- Informazio gehiago: Zumarte Musika Eskolako bulegoan, Kale Nagusia, 45 (943 371 594).
- Web orrialdea: zumarte.org

Aginagako txokoetan izena emateko epea irekita dago oraindik

Antxomolantxa elkartearen eskutik

Ekainaren 24tik 28ra eta irailaren 2tik 6ra. Ordutegia: 10:00-13:00. Prezioa: bazkide direnek 10 euro, gainerakoek 20 euro. Izen ematea: ekainaren 5era arte (637 332 402).

San Praixku guraso elkartearen eskutik

Uztailaren 1etik 30era. Izen ematea: hilabete osoa edo hilabete erdirako apuntatzeko aukera ekainaren 14ra arte, 637 332 402 telefono zenbakian. Aginagako eskolako ikasleentzat: 55 euro hilabete osoa, 30 euro hilabete erdia. Aginagako eskolako ikasle ez direnentzat: 90 euro hilabete osoa, 55 euro hilabete erdia.

Ekainaren 10ean, Gaztelekuko guraso-bilera

Amaitzear den ikasturteko balantzea egin eta burutu diren ekimenetako argazkiak ikusi ahal izango dituzte ekainaren 10ean, Gaztelekuan ibili ohi diren gaztetxoek gurasoek. Aita-amei zuzenduriko bilera antolatuko dute egun horretarako, Gaztelekuan bertan, arratsaldeko 18:00etan.

Makillaje ikastaroa

Astelehenean burutuko da, ekainaren 3an, 15:30-17:30 artean Potxoenean. Miren Ezeizak gidatuko du, DBH 2,3 eta 4. mailako ikasleei zuzendua egongo den saioa. Izen ematea, euro baten truke Gaztelekuan bertan.

Antzerki Txiki taldekoen emanaldiak

Urtean zehar herrian antzerkigintzan diharduten gaztetxoek taldeak, Antzerki Txiki taldekoek hiru emanaldi eskainiko dituzte bi egunetan, datorren astean. Ekainaren 4an eta 6an, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Bertaratzeko gonbita luzatzen dute antolatzaileek.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Larunbatean Haranera, gorriz jantzita animatzera



Partida 17:00etan hasiko da. Aurreko astean 0-1 irabazi zuten eta eskura dute igoera.

Denboraldia bukatzen ari da, baina Haranen oraindik bada azkeneko partida handi bat. "Larunbat honetan, arratsaldeko 17.00tan, kadeteen play off-etako bigarren partida jokatu da. Pasa den asteburuan, lehenengo partida jolastu zuten eta 0-1 emaitzarekin garai-

le izan ziren. Larunbat honetakoa ere, partida zaila izango den arren, eskura dute gazteek igoera". Horregatik, Usurbil Futbol Taldekoek, larunbatean Haranera gorriz jantzita igotzeko deialdia egin dute. "Anima zaitetze Haranera, eta animo mutiak!!", diote Usurbil FT taldekoek.

Lokiz mendizerra, Andatzaren hurrengo irteera

Nafarroa mendebaldera, Lokizeko mendizerran barrena, 18 kilometroko ibilbidea prestatu dute Andatzakoek, ekainaren 9rako antolatu duten irteerarako. Narkuetik Urbisurako bidea osatuko dute, tartean, Arlaba mendia eta Lokiz zeharkatuz. Amaieran, otordua egiteko Urbisuko elkartean bilduko dira guztiak. Irteera ordua, goizeko 6:30etarako jarri dute Oiarde Kiroldegian. Joan etorrria autobusez egingo da. Izen emateko, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak Kutxabanken duen kontu korrante zenbakian, ordainketa egin behar da, ekainaren 5a baino lehen: 2095 5069 07 1068489805. 27 euro Andatzako bazkide eta langabetuek, 30 euro gainerakoek. Plazak mugatuak izango dira. Lehenasuna, Andatzako bazkideek izango dute. Informazio gehiago, andatza.com web orrialdean.

Kiroldegiko udako ekintzetan izena emateko garaia

Denatariko jardueraz osaturiko "Kirolarekin jolasean" ekimenean izen emateko epea, asteburuan irekiko dute ekainaren 23ra arte. Uztailean burutuko da bi txandatan; uztailaren 1etik 16ra eta uztailaren 17tik 30era. Goizez, 10:00-13:00 artean. 8-10 urte artekoek parte har dezakete. Prezioa: abonatuak direnentzat; 106 euro.

Igerilekuko eskaintza

Uda parterako helduentzako ere ikastaroak antolatu dituzte; spinning, gimnasia, yoga, zumba, pilates, aerobik, jubilatuentzako saioak... Baita igerilekuan ikastaroak ere. Igerian haurtxoek eta 3-7 urte artekoentzat ere saioak izango dira. Izen ematea edo informazio gehiago jasotzeko: Oiarde Kiroldegian bertan edo 943 372 498 telefono zenbakian.



Infantil neskak, txapeldun

Eduardo de la Puente XVII. Eskubaloiz Memorialen Usurbil KEko infantil neskek hartu dute parte. Nesketan usurbildarrak izan ziren garai-le eta Enara Eizagirre jokalaria onena izendatu zuten (argazkian, saria jasotzen). Zorionak!

Usurbilgo 41. Pilota Txapelketako partidak

Ekainak 1 larunbata

Goizeko 11:00etan Usurbilen

NAGUSIAK

Esna - San Sebastian (Hernani)

Santxo - Urruzola (Usurbil)

E. Labaka - K. Galarraga (Bidegoien)

Jaunarena - Larraia (Leitza)

Ekainak 2 igandea

Goizeko 11:00etan Usurbilen

NAGUSIAK

Intsausti - Aizpitarte (Añorga, Hernani)

Otxandorena - Landiribar (Baztan)

Ijuria - Okiñena (Irurtzun)

Muguruza - Mitxelena (Bergara, Arantza)

Patxi Azpirotzen hiru milakoak, iruditzen

25 urteetan Pirinioetan egin dituen hiru mila-koak argazkietan bildu eta orain, irudi bilduma osoa jendaurrean aurkeztuko du Patxi Azpirotz herritarra. Andatza Mendizaleen Kirol Taldearekin batera, diaporama saioa antolatu du ekainaren 7rako, 19:30etatik aurrera Sutegin. Azpirotzek oroitzen duenez, bere lehenengo hiru milakoa "Balaïtous izan zen 1979an. 25 urte beranduago, 2004an, nire 212. hiru mila-ko igo nuen, Perdido Mendiaren Hatza".



212 dira hiru milakoak Pirinioetan.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berrituko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpenean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalfakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sai-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

lean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena beriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pisua alokairuan edo salgai Munalurran. 637 309 209.

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Usurbilgo kaxkoan pisu eguzkitsua, 2 logela. Igogailuarekin eta bero-gailuarekin. 635 20 56 94.

Kaxkoan pisu eguzkitsua alokatzen da, 2 logela. Igogailuarekin, bero-gailuarekin. 635205694

Pisu bat alokatzen da kaskoan, 3 logela, sala, sukalde, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tlf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela,

sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

MOTORRA

salmenta,

garajeak

Garaje itxia salgai. 20 m karratuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4 Tdi 80 zaldi. 58.500 km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kobxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatze eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goizez zein

arratsalde. Irakaskuntza diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketaren eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneriatza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntza esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH

Jaiotzak

Mikel Atxega Makazaga, martxoak 21

Jon Harreguy Lizarralde, martxoak 23

Aimar Diaz de Otalora Elizasu, m-31

Aratz Rezola Tapia, apirilak 10

Unax Vega Erauskin, apirilak 12

Eiden Palma Barbero, apirilak 22

Salkaval Sadvi, apirilak 29

Ani Zubiria Eizagirre, apirilak 29

Joanes Ostolaza Jauregi, maiatzak 13

Ander Barandiaran Duque, maiatzak 14



Zorionak printzesa!!

Ekainaren 4an 7 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu potolo bat etxekoan partez.



Naroa Zorionak!

Lau urte beteko dituzu maiatzaren 29an. Eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu potolo bat.



Lander Zorionak!!

Hiru urte beteko dituzu maiatzaren 26an. Eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu potolo bat.



Zorionak Nahikari!

Ekainaren 1ean 9 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partez.



Amets Zorionak!

Hiru urte beteko dituzu maiatzaren 26an. Eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu potolo bat.

Heriotzak

Joxe Mari Izagirre Alkorta
62 urterekin hil zen,
Usurbilen



1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usu-

bilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Frantsesezko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetara-

ko Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondura egiteko. 667406010.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negozia-garriak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gazte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispiuak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene-etik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala 943 371 951
Atez ateko bulegoa 900 776 776
Udaltzaingoa 943 361 112
Udal zerbitzuak (Brigada) 943 370 148
Sexu Aholkularitza Gunea 697 919 516
Gizarte Zerbitzuak 943 377 110
Diputazioa - Basetxea 943 361 215
Bake Epaitegia 943 372 336
Udarregi Ikastola 943 361 216
Haur Eskola 943 374 061
Zubietako Lanbide Eskola 943 364 600
Zubietako Herri Batzarra 943 372 077
Hastapen tailerrak 943 360 465
KZgunea 943 023 684
Oiarde Kiroldegia 943 372 498
Sutegi Udal Liburutegia 943 360 692
Zumarte Musika Eskola 943 371 594
Etumeta AEK Euskaltegia 607 609 379
Kalezar Egunezko Zentroa 943 365 249
Gure Pakea Zahar Egoitza 943 368 770
Gure Elkartea Zahar Egoitza 943 371 751
Arrate Zahar Egoitza 943 366 340
Usurbilgo Salbatore Parrokia 943 361 239
NOAUA! Kultur Elkartea 943 360 321

Abere-Landare Babeslea 943 376 650
Taxia (Angel) 607 928 770
Taxia (Joxe Kruz) 677 373 466
Eusko Tren 943 470 976
LurraldeBus 943 000 117
Korreos - posta zerbitzua 943 362 894
Anbulategia 943 362 013
Oa botika 943 376 076
Iturralde botika 943 363 395
DYA 943 464 622
Gurutze Gorria 943 272 222
Emergentziak 112
Genero-indarkeria, arretoa 900 840 111 / 016
Gonzalez Ehorzetxea 943 362 163
Gipuzkoa Donostia Kutxa 943 361 202
Euskadiko Kutxa-Laborala 943 364 740
Banco Guipuzcoano 943 370 006
Banco Popular Español 943 370 411
BBVA 943 377 155
Caja Rural Kutxa 943 368 842
Argindarra - Iberdrola 901 202 020
Gas naturala - Naturgas 902 123 456
Telefonica 1004
Euskaltel 900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 30-ekainak 9

Osteguna	30	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	31	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata	1	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea	2	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Astelehena	3	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteartea	4	GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola	9 Lasarte
Asteazkena	5	ORUE Jaizkibel plaza,	2 Lasarte

Osteguna	6	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Ostirala	7	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata	8	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	9	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Agenda

maiatza / ekaina

31 ostirala

- **Ikastolaren Eguneko ekitaldiak** xehetasunak (11. orrialdean).
- **MunduMob entsegua Zubietan** 19:00etan Eskola Txikian.
- **Elkarretaratzea, presoen eskubideen alde** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

1 larunbata

- **Sagastien inausketa ikastaroa** 9:00etan Potxoenean.
- **Baratze ekologikoaren laborantzarako has-tapen ikastaroa** 9:30-13:30.

2 igandea

- **Ikastola Eguna** (egitaraua 11. orrialdean).
- **VII. Tipi-Tapa: gula pintxo ibilbidea** goizetik 15:00ak arte. 300 euroko erosketa-balearen zozketa, Aitzagan 15:00etan.

Sagastien inausketa ikastaroa egingo da larunbatean Potxoenean

Apiriletik asteburu honetara arte luzatu den "1. Sagastiak Loretan" ospakizun zikloa amaitzeaz da. Larunbat honetarako, ekainaren 1erako dago iragarria azken ekitaldia. Sagastien udako inausketa ikastaroa egingo da, goizeko 9:00etatik aurrera Potxoenean. Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariak gidatuko du, teoria eta praktika uztartuko dituen saioa.



Sagarkien dastaketa egin zen Aitzagan.

Taldetxoa, sagarkien dastatzean

Usurbilgo sagarkiak dastatzeko, maiatzaren 23an Aitzaga elkartearen burutu zen ikastaroko argazkia duzue ondokoa. Taldea osatu zen, sagar-dul-

tzea, muztio eta sagardoak dastatzeko. Probatzeko moduan ziren produktu denak etxeok ziren, Usurbilgoak.

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da maiatzaren 31 honetan. 20:00etatik aurrera, Mikel Laboa plazan. Bestalde, Etxerater antolaturiko Euskal Herri mailako Lasterbidean kirol ekimena burutuko da igandean Oiartzunen. Usurbildarrei hitzordu honetan parte hartzeraz deitzen zaie. Bi lasterketa egingo dira, eguerdian ekitaldia, eta lasterkarientzako bazkaria Elorsoro kiroldegian. Informazio gehiago: lasterbidean.com

Baratze ekologikorako laborantza ikastaroa

Ekainaren 1ean eta 8an burutuko da ikastaroa. Hedadura, lursailaren prestaketa, laboreak eta garai egokiak, plangintza, hazitegiak, ereintza, laboreen zaintza, tratamendu naturalak, elkarretak eta errotazioa landuko dituzte partaideek. Plazak mugatuak izango dira, gehienez 12 lagunentzako lekua dago. Saioen ordutegia haxe izango da: goizez, 9:30-13:30 artean. Prezioa, 20 euro. Izen ematea: 646 449 358 edo usurbiltzen@gmail.com

Datozenak

UEMA Eguna, ekainaren 8an Aramaion

"Aire berria euskarari!" lemapean egingo da UEMA Eguna. Lurgune euskaldunek euskararen geroan duten papera aitortu beharra dagoela uste du UEMak. Goi erakundeek euskaldunen erabateko euskalduntzea bermatu beharra dutela, orain arteko legeek ez baitute halakorik ziurtatu. Euskara bere sorlekuan tokia bilatu ezinik dabilela salatuko dute ekainaren 8an. Jaia eta aldarrikapena uztartuz, arnasten jarraitzeko eta arnagunea zabaltzen joateko, euskarari aire berria eskaini nahi diote antolatzaileek, Aramaioko hitzorduekin. Haxe egitaraua:

- 10:00 Batzar Nagusia.
- 11:30 UEMA Eguneko hasierako suziria eta kalejira trikitilari eta dantzariekin. Goizean zehar, haurrentzako puzgarriak, artisaus azoka, talogileak eta sagardoak...
- 12:00 Goizueta-Aramaio herri kirol lehia. Haurrentzako puzgarriak, jokoak eta tailerrak.
- 13:00 Ekitaldia plazan.
- 14:00 Kalejiran bazkaltzera. Txartelak: 18 euro helduek, 12 euro 14 urte arteko haurrek. Txartelak erosteko: 94 627 91 95.
- 16:30 Ane eta piratak parrandan! Irrien Lagunen ikuskizuna.
- 18:30 Erromeria: Zesuma taldea.
- 22:00 Kontzertuak.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Okidegia-Gozotegia

LABE-GOXO

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11

izagirrelektrizitatea@hotmail.com

Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Otar-Goxo

Elizagaia

Zubiaurrenea, n°2

☎ 943 36 55 81

20170 Usurbil

KOADRILA ESKAINTZA!!!
15€ tan!!!*



IRATXO
Taberna



ESKAINTZA
10 CARLSBERG
GARAGARDOAK
+
PATATA TORTILA OSOA
edo RAZIO EZBERDINAK



Tel. 943 374 330 • Bordaberri 5 • Usurbil
www.iratxodeusurbil@facebook.com

Sarreraren salmenta




bastero
KULTURGUNEA

Eñaut Elorrieta
zuzenean
deserriko kantak



EKAINAK 7, ostirala - 21:30





Info: 943 30 35 40
www.andoain.org

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

943 36 46 00
www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administrazioa eta kudeaketa	Elektrizitate-elektronika	Fabrikazio mekanikoa	Ura eta energia Produkzio zerbitzu eta manten.
			

Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA maiatzaren 27tik ekainaren 7ra





EDERTU ZAITEZ!

LOLI LIZARRALDE
ESTILISTA

ESTETIKA TARIFAK

- Aurpegi garbiketa 30€
- Manikura 9€
- Pedikura 15€
- Bekainak edo bibotea 4€
- Besapeak edo ingeak 5€
- Hanka osoak 15€
- Hanka erdiak 12€

***EZ DUGU BEZ-A (IVA) IGO!**

Zubiurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROIONIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARRAREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBETUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Snar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROLOGIA • KOKUNTERAPIA

munalurra 2, USURBIL 943 571680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

Egurditan irekia!
Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN
ESTILISMOA ETA ESTETIKA
LANTZEN DITUGU

ESTETIKA ESKAINTZAK

Gorputz espoliazioa eta masajea edo Aurpegiko garbiketa osoa edo Manikura eta pedikura osoa:
30€-tan (jubilatuentzat 22€)

IKASLE EDO 18< GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:
Ingeak + besapeak: **10€** • Bekainak eta bibotea: **7€**
Hanka osoak: **18€** • Hanka erdiak: **10€**

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaia

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

m
I
mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiurrenea 4, ☎ 943 361 951